

# ZERAINGO HERRI BATZARRA



Txosten honek 2016ko urtarrilaren 17an egindako Herri Batzarrean Udalak emandako informazioa jasotzen du.

<b>ZERAINGO HERRI BATZARRA.....</b>	<b>1</b>
<b><u>1. Sarrera</u> .....</b>	<b>2</b>
<b><u>2. Informazioa</u>.....</b>	<b>2</b>
<b>2.1 Udal kudeaketa.....</b>	<b>2</b>
• 2015eko itxiera (aurreikuspena).....	2
• 2016ko aurrekontua (aurreikuspena) .....	5
• 2015-2016 Konparaketa .....	7
• Proiektu berriak.....	8
• Medikua.....	9
• Zuntz optikoa Zerainen.....	10
• Tabernak.....	10
<b>2.2 Batzordeak.....</b>	<b>11</b>
<b>2.3 Epealdiko ekintzak (2015-11-29tik 2016-1-17ra).....</b>	<b>12</b>
• Abenduaren 3a: EUSKERAREN EGUNA.....	12
• Gabonak.....	14
<b><u>3. Segura-Zerain mendi lasterketa</u>.....</b>	<b>16</b>

## 1. Sarrera

- Bigarren herri batzarra izan da, urteko lehenengoa. Honetan diru kontuek hartuko dute tarterik handiena.
- Aurreko batzarrean aipatu bezala, asmoa da urtean zehar 4 batzar egitea gutxienez. Udalaren informazioa emango da, kontuak barne. Herritarren balorazioa jasoko da. Gainera, batzordeetan landutakoa aurkeztu eta ekarpenak jasoko dira batzordeetan lantzeko.
- 2016ko herri batzarrak: urtarrilak 17, hiru hilabete ondoren apirilak 17, uztailak 17, urriak 16.

## 2. Informazioa

### 2.1 Udal kudeaketa

- **2015eko itxiera (aurreikuspena)**

2015ko itxiera egiteko oinarri bezala erabili dugu aurreko agintaldian erabilitako 2015eko modeloa.

Hurrengo tauletan, lehen zutabea aurreko Udal taldeak aurkeztutako presupuestoa ageri da, bigarren zutabea behin-behineko itxierako datuak eta hirugarrenean aurreikusitakoaren eta errealitatearen arteko desbideratzea.



ZERAINZU UDALA

## GASTUAK

	AURREKONTUA	ITXIERA(LIKIDAZIOA)	DESBIDERATZEA
MAILEGUAK	38.700,00 €	37.911,95 €	788,05 €
LANGILEEN SOLDATA	109.162,00 €	109.162,00 €	0,00 €
ENPLEGU SUSTAPENA (BEKADUNAK)	5.000,00 €	5.035,44 €	-35,44 €
HIRIGINTZA	15.226,00 €	17.845,50 €	-2.619,50 €
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	11.181,00 €	8.547,77 €	2.633,23 €
UR -ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	28.700,00 €	18.887,92 €	9.812,08 €
GARBIKETA	21.800,00 €	21.612,94 €	187,06 €
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	25.750,00 €	29.759,92 €	-4.009,92 €
ONGIZATEA + OSASUNA+JUBILATUEK	5.550,00 €	6.675,21 €	-1.125,21 €
HERRI ESKOLA	13.400,00 €	14.744,02 €	-1.344,02 €
KULTUR EKIPAMENDUAK ETA SUSTAPENA	40.000,00 €	29.333,99 €	10.666,01 €
EUSKERA	11.200,00 €	9.592,39 €	1.607,61 €
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK ETA AZOKA	13.500,00 €	12.094,30 €	1.405,70 €
TURISMOA	22.700,00 €	35.023,18 €	-12.323,18 €
ADMINISTRAZIO OROKORRA	29.301,00 €	27.484,10 €	1.816,90 €
<b>GASTU FINKOAK</b>	<b>391.170,00 €</b>	<b>383.710,63 €</b>	<b>7.459,37 €</b>
LANDA GARAPENA eta TURISMO	156.830,00 €	163.147,99 €	-6.317,99 €
<b>GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK )</b>	<b>156.830,00 €</b>	<b>163.147,99 €</b>	<b>-6.317,99 €</b>
<b>DENERA</b>	<b>548.000,00 €</b>	<b>546.858,62 €</b>	<b>1.141,38 €</b>

## SARRERAK

	AURREKONTUA	ITXIERA (LIKIDAZIOA)	DESBIDERATZEA
IBILGAIUEN -ONDASUNAK	71.700,00 €	64.847,00 €	-6.853,00 €
OBRAKO ZERGA	12.000,00 €	8.056,00 €	-3.944,00 €
TASAK (ZABORRA-FRONTOIA)	36.913,00 €	33.215,00 €	-3.698,00 €
FORU FUNTSA	240.213,00 €	234.467,00 €	-5.746,00 €
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €	7.880,00 €	1.080,00 €
<b>SARRERAK FINKOAK</b>	<b>367.626,00 €</b>	<b>348.465,00 €</b>	<b>-19.161,00 €</b>
<b>SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)</b>	<b>150.374,00 €</b>	<b>146.885,00 €</b>	<b>-3.489,00 €</b>
<b>DENERA</b>	<b>518.000,00 €</b>	<b>495.350,00€</b>	

Hurrengo taulan, sarreren eta gastuen laburpen orokor bat ageri da. Ikus daitekenez, aurreko Udal taldeak aurkeztutako aurrekontuan sarreren eta gastuen arteko desfasea deuseztatzeko, ZERAINZUEN, S.A enpresaren 30.000€-tako deskapitalizazio bat erabiltzen zen. Errealitatean bukaeran kontuek erakusten dutena zera da, desfase hau 51.508,62€-tako zela.



ZERAINZUEN, S.A.-ri buruz gaur egun guk ditugun datuekin, deskapitalizazio hau ez da bideragarria eta horregatik urtea 51.508,62€-ko defizitarekin amaituko da.

Lortu ahal izan ditugun datuekin, badakigu defizit hau ez datorrela 2015 urtetik bakarrik. Badirudi ohikoa zela urtea defizitarekin ez bukatzea horretarako fakturak urte batetik hurrengora pasatuz. Honen adibide sendoa da enpresaren langiletako baten, Ana Ezeiza arkitekta, 2014ko eta 2015eko fakturak kobratu gabe egotea.

### AURREIKUSPEN OROKORRA

	AURREKONTUA	ITXIERA (LIKIDAZIOA)	DESBIDERATZEA
SARRERAK FINKOAK	367.626,00 €	348.465,00 €	-19.161,00 €
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	150.374,00 €	146.885,00 €	-3.489,00 €
<b>DENERA</b>	<b>518.000,00 €</b>	<b>495.350,00 €</b>	<b>-22.650,00 €</b>
GASTU FINKOAK	391.170,00 €	383.710,63 €	7.459,37 €
GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK )	156.830,00 €	163.147,99 €	-6.317,99 €
<b>DENERA</b>	<b>548.000,00 €</b>	<b>546.858,62 €</b>	<b>1.141,38 €</b>
<b>EMAITZA</b>	<b>-30.000,00 €</b>	<b>-51.508,62 €</b>	<b>-21.508,62 €</b>

Hurrengo taulan 2015urtean jasotako diru laguntzak ageri dira, hauetako bakoitza nun inbertitu den justifikatzeko erabilitako fakturekin eta emaitzarekin batera.



## 2015ean JASOTAKO DIRULAGUNTZAK ETA BERAIEEN ERABILPENA

SARRERA EGUNA	DIRULAGUTZAREN KONZEPTUA	DIRULAGUNTZA	GASTUAK	JUSTIFIKAZIOKO FAKTURA	DIFERENTZIA
13/01/2015	GFA 2000 BIZTANLE 2014	IBIOMASA	29.070,64 €	36.500,00 €	ECHAIDE - 7.429,36 €
14/01/2015	EJ TURISMO BULEGOA	ITURBASQUE	4.550,00 €	4.550,00 €	ALDABE,Koop.E - €
27/01/2015	GFA 2000 BIZTANLE 2013	LABORDE GUNEA	10.999,60 €	10.762,95 €	TXIRBIL,Koop.E 236,65 €
	GFA 2000 BIZTANLE 2013	LABORDE GUNEA	16.449,40 €	16.126,88 €	ECHAIDE 322,52 €
30/01/2015	EJ	PAISAIA PLANA DIAGNOSIA	1.419,00 €	1.419,00 €	ASIER GALDOS - €
18/04/2015	IHOBE	IKASLE BATEN BEKA	11.206,15 €	5.035,44 €	BEKADUNA 5.035,44 € ZERAINTZEN,S.A 6.170,71 €
11/08/2015	GFA	BIODIBERSITATEA 2014	35.000,00 €		ZERAINTZEN,S.A 35.000,00 €
11/09/2015	EJ TURISMO BULEGOA	ITURBASQUE	4.550,00 €	4.550,00 €	ALDABE,Koop.E - €
28/10/2015	EJ	BIODIBERSITATEA 2015	41.007,15 €		ZERAINTZEN,S.A 41.007,15 €
28/12/2015	EJ	PAISAIA PLANA DIAGNOSIA	24.231,00 €	10.885,61 €	EGUZKI-IHINTZA 6.189,15 € ASIER GALDOS ZERAINTZEN,S.A 7.156,24 €
			178.482,94 €	89.829,88 €	87.499,35 €

- **2016ko aurrekontua (aurreikuspena)**

Hurrengo tauletan, 2016 urtearen lotutako sarreraren eta gastuen aurreikuspena azaltzen da.

Bai gastuak, baita sarrerak ere finko eta aldakor bezala definitzen ditugu. Urtean zehar aldatzen ez diren gastuak izango dira finkoak eta jasotako diru-laguntzekin lotura dutenak izango dira aldakorak.

Egoera ezin hobea litzateke gastu finkoak sarrera finkoek estaltzea, bestela duguna baino gehiago gastatzen dugunaren adierazpena izango da eta iritsiko diren edo ez diren sarreraren menpe gaudela. Orain arteko egoera azken hau izan da, eta antolaketa egitura aldatu ezean desfase berdina egongo da eta laguntzen menpe egongo gara.



## GASTUAK

	2016	%
MAILEGUAK	38.350,00 €	9,01%
UDALEKO LANGILEEN SOLDATA	111.570,00 €	26,23%
ENPLEGU SUSTAPENA (BEKADUNAK)		
HIRIGINTZA	8.000,00 €	1,88%
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	11.500,00 €	2,70%
UR -ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	20.200,00 €	4,75%
GARBIKETA	23.300,00 €	5,48%
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	22.633,80 €	5,32%
ONGIZATEA + OSASUNA+JUBILATUEK	5.650,00 €	1,33%
HEZKUNTZA PROIEKTUA	14.800,00 €	3,48%
KULTUR EKIPAMENDUAK ETA SUSTAPENA	14.000,00 €	3,29%
EUSKERA	3.300,00 €	0,78%
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK ETA AZOKA	14.700,00 €	3,46%
TURISMOA	21.500,00 €	5,05%
ADMINISTRAZIO OROKORRA	30.101,00 €	7,08%
<b>GASTU FINKOAK</b>	<b>339.604,80 €</b>	<b>79,83%</b>
ZERAINZEN, S.Ako LANGILEEN SOLDATA	65.801,80 €	15,47%
<b>GASTU FINKO OROKORRAK</b>	<b>405.406,60 €</b>	<b>95,30%</b>
DIRULAGUNTZEKO GASTUAK	20.000,00 €	4,70%
<b>GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)</b>	<b>20.000,00 €</b>	<b>4,70%</b>
<b>DENERA</b>	<b>425.406,60 €</b>	

## SARRERAK

	2016
IBILGAIJEN -ONDASUNAK	66.700,00 €
OBRAKO ZERGAK	8.000,00 €
TASAK (ZABORRA-FRONTIOIA)	30.000,00 €
FORU FUNTSA eta TRANSFERENTZI ARRUNTAK	249.743,00 €
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €
<b>SARRERA FINKOAK</b>	<b>361.243,00 €</b>
2015 EJ ETA GFAko DIRULAGUNTZAK	
EUSKO JAULARITZA:BIODIBERSITATEKO DIRULAGUNTZA	44.163,60 €
FORU ALDUNDIA : LURRALDE OREKA	20.000,00 €
<b>SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)</b>	<b>64.163,60 €</b>
ZERAINZEN, S.A DESKAPITALIZAZIOA	
<b>DENERA</b>	<b>425.406,60 €</b>

## AURREIKUSPEN OROKORRA

	2016	2015
SARRERA FINKOAK	361.243,00 €	367.626,00 €
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	64.163,60 €	150.374,00 €
<b>DENERA</b>	<b>425.406,60 €</b>	<b>518.000,00 €</b>
GASTU FINKO OROKORRAK	-405.406,60 €	-391.170,00 €
GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	-20.000,00 €	-156.830,00 €
<b>DENERA</b>	<b>-425.406,60 €</b>	<b>-548.000,00 €</b>
<b>EMAITZAK</b>	<b>0,00 €</b>	<b>-30.000,00 €</b>

\*2015eko kontuak otsail bukaerarako itxita egon behar dute. 2016ko aurrekontua urtarrileko plenoan, urtarrilaren 27an, onartzeko asmoa dugu.

- **2015-2016 Konparaketa**

### GASTUAK

	2016	%	2015
MAILEGUAK	38.350,00 €	9,01%	38.700,00 €
UDALEKO LANGILEEN SOLDATA	111.570,00 €	26,23%	109.162,00 €
ENPLEGU SUSTAPENA (BEKADUNAK)			5.000,00 €
HIRIGINTZA	8.000,00 €	1,88%	15.226,00 €
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	11.500,00 €	2,70%	11.181,00 €
UR -ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	20.200,00 €	4,75%	28.700,00 €
GARBIKETA	23.300,00 €	5,48%	21.800,00 €
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	22.633,80 €	5,32%	25.750,00 €
ONGIZATEA + OSASUNA+JUBILATUEK	5.650,00 €	1,33%	5.550,00 €
HEZKUNTZA PROIEKTUA	14.800,00 €	3,48%	13.400,00 €
KULTUR EKIPAMENDUAK ETA SUSTAPENA	14.000,00 €	3,29%	40.000,00 €
EUSKERA	3.300,00 €	0,78%	11.200,00 €
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK ETA AZOKA	14.700,00 €	3,46%	13.500,00 €
TURISMOA	21.500,00 €	5,05%	22.700,00 €
ADMINISTRAZIO OROKORRA	30.101,00 €	7,08%	29.301,00 €
<b>GASTU FINKOAK</b>	<b>339.604,80 €</b>	<b>79,83%</b>	<b>391.170,00 €</b>
ZERINTZEN, S.Ako LANGILEEN SOLDATA	65.801,80 €	15,47%	
<b>GASTU FINKO OROKORRAK</b>	<b>405.406,60 €</b>	<b>95,30%</b>	<b>391.170,00 €</b>
DIRULAGUNTZEKO GASTUAK	20.000,00 €	4,70%	156.830,00 €
<b>GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)</b>	<b>20.000,00 €</b>	<b>4,70%</b>	<b>156.830,00 €</b>
<b>DENERA</b>	<b>425.406,60 €</b>		<b>548.000,00 €</b>
<b>EMAITZAK</b>	<b>0,00 €</b>	<b>0,00%</b>	<b>0,00 €</b>

## SARRERAK

	2016	2015
IBILGAIUEN -ONDASUNAK	66.700,00 €	71.700,00 €
OBRAKO ZERGAKEK	8.000,00 €	12.000,00 €
TASAK (ZABORRA-FRONTIOIA)	30.000,00 €	36.913,00 €
FORU FUNTSA eta TRANSFERENTZI ARRUNTAK	249.743,00 €	240.213,00 €
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €	6.800,00 €
<b>SARRERA FINKOAK</b>	<b>361.243,00 €</b>	<b>367.626,00 €</b>
2015 EJ ETA GFako DIRULAGUNTZAK		150.374,00 €
EUSKO JAULARITZA: BIODIBERSITATEKO DIRULAGUNTZA	44.163,60 €	
FORU ALDUNDIA : LURRALDE OREKA	20.000,00 €	
<b>SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)</b>	<b>64.163,60 €</b>	<b>150.374,00 €</b>
ZERAINZEN, S.A DESKAPITALIZAZIOA		30.000,00 €
<b>DENERA</b>	<b>425.406,60 €</b>	<b>548.000,00 €</b>

- **Proiektu berriak**

Hurrengo taulan, eskatutako diru-laguntzak ageri dira. Hauetatik bi bakarrik jaso ditugu 2016ko aurreikuspenean nahiko seguruak ikusten ditugulako, Biodibersitatekoa beste urtetan jaso delako eta Lurralde orekako herri guztiak jasotzen dutelako. Jasotako beste diru-lagutzeekin, lortzean estaltzen dituzten proiektuetako zatiaren portzentaiaren arabera eta udaletxeak jarri beharreko zatiaren arabera erabakiko da zer egin eta nondik lortuko den diru hori.





PROIEKTUA MUSEOA	
MUSEOA	10.800,00 € <small>EZ ONARTUA</small>
PROIEKTUA IRISGARRITASUNA PLANA	
IRISGARRITASUNA	5.272,05 €
PROIEKTUA BIODIBERSITATEA	
BIODIBERSITATEA	73.606,75 €
PROIEKTUA EREIN -GOIMEN	
2015 EKIPAMENDUA	15.916,67 €
2015 ETXEBIZITZAKO IKERKETA	15.527,05 €
2015 AIZPITAKO IGOGAILUA	5.346,35 €
2015 OSTATUKO ESTALPEA	52.520,22 €
2015 KOMUN PUBLIKOA	12.768,19 €
PROIEKTUA KALTZADA	
2015 PATRIMONIOA-KALTZADA	289.412,32 €
GOIMEN 2016	
2016 HERRIKO PLAZA	10.000,00 €
2016 OINEZKO BIDEA	39.000,00 €
2016 BASERRI BIDEAK	15.000,00 €
2016 MUGEEEN EGUNERAKETA	15.000,00 €
Zerain dezagun fundazioa -PROIEKTUA LUR BANKUAK	
GOIMEN	14.260,00 €

- **Medikua**

Ia 20 urte gurekin egon eta gero, Juan Karlos jubilatu egin da. Abenduaren hasieran agur idatzi bat bidali zuen eta itxaron gelan ikusi ahal izango duzue. Horren aurrean, Mutiloako udalarekin eskerrak emateko zer egin aztertu eta erabaki genuen ondorengo emaitzarekin: Bertso bat enmarkatuta eta bi lagunentzako bazkaria jatetxe batean.

Honen aurrean, kezka genuen zein egoeratan geratuko ginen aurrerantzean eta Mutiloako udalarekin batera bilera egin genuen Zumarragako ospitaleko gerentearekin.

Berri oso onak eman zizkigun: Beasaingo osasun zentroko Alazne Saizar medikuak trasladoa eskatu zuela postu hori betetzeko eta urtarrilaren 18an etorriko zela jakinarazi ziguten.



- **Zuntz optikoa Zerainen**

Herrian dugun Interneteko abiadurak hainbat arazo sortzen dizkigu, batez ere Barbarin, gehiago ezin dutelako lortu. Berri onak ditugu gai honen inguruan, aste honetan bertan bilera izan dugu Telefonicarekin. Gipuzkoa osoan zuntz optikoaren sare publikoa osatzen ari dira Europako laguntzekin.

Dagoeneko herri askotan instalazioak egin dituzte eta hilabete barru Seguratik Zerain kaskora etorriko dira, ondoren auzoetara, gero Zegamara joateko. Zuntz optikoarekin, 300megako abiadura izateko aukera izango dugu orain duguna baino 100 aldiz gehiago.

Ez da ezer ordaindu behar instalazio honengatik eta etxe guztietan egin ahal izango dela esan digute. Kaskoan akometidak eginak ditugula jakinarazi diegu, horiek erabili eta zuntza lurpetik pasatzeko horretarako prestatuta dagoen tokitik.

Instalazioaren obra bukaera uda alderako egina egongo dela uste dute eta orduan erabiltzen hasi ahal izango da horretarako edozein konpainiekin kontratua eginez.

- **Tabernak**

Aldaketa asko izan dira, (azken 15 urteetan 5 ostatuan eta beste 5 Mandioan) kontratuak 4 urtekoak diren arren askotan lehenago alde egin dute.

Herriari ematen dioten zerbitzua oso garrantzitsua da, horregatik daudenak egonkortzea garrantzitsua da. Helburu horrekin bi tabernei negu parterako proposamenak egiteko aukera eskaini diegu. Mandioak berdin jarraitu nahi duela adierazi digu eta Ostatuak proposamen bat egin zigun.

Bi tabernetako arduradunekin batera gaia aztertu dugu eta 2016an proba moduan martxan jartzea erabaki dugu.



Ostatua Ekainetik, irailera, San Juanetatik azoka ekologikora bitartean, eta oporrak (aste santua, gabonak) salbu, astelehena eta asteartean itxita egongo da.

Hiletaren bat edo festa bereziren bat tokatzen bada koordinatu daiteke eta irekitzeko aukera izango da.

Oporrak otsailean 1-24 artean. Lehen balorazioa ekainean egingo dugu bi tabernetako arduradunekin eta azkena abenduan. Horren arabera erabakiko da 2017an nola jarraitu.

## 2.2 Batzordeak

Urtarrilean hasiko dira lanean. Batzarrean 4 osatzea proposatu genuen. Hauek izango dira batzordeak, bakoitzaren lan esparrua eta lehen bileraren data:

- **Herri bizitza:** Kultura, kirola, hezkuntza, ongizatea, komunikazioa, berdintasuna, liburutegia, festak, kultur eta kirol ekintzak, ikastaroak, jubilatuz, haur eta gazteen ekintzak, Euskera, Xaguartea eta urtekaria... **OTSAILAK 15 arratsaldeko 18.00etan, astelehena, Kultur etxean.**
- **Tokiko garapena:** Fundazioa, 1. sektorea, sagardotegiak, turismoa, partzoneria, Aizkorri-Aratz parke naturala, zerralan... **OTSAILAK 22, goizeko 11.00etan, astelehena, Udalean.**
- **Azpiegiturak, ingurumena, zerbitzuak:** Komun publikoa, oinezkoen bidea, etxebizitzak, biomasa, hondakinak, zuntz optikoa, Goi tentsioko proiektua... **OTSAILAK 11 arratsaldeko 18.00etan, osteguna, Udalean.**
- **Diru kontuak:** 2016ko aurrekontuaren jarraipena. **MARTXOAK 11 arratsaldeko 18:00etan, udalean.**

**Antolamendu batzordea** eskema honetatik atera dugu Zerainlab aldebakarreko inizatiba izatea anitza izateko oztopoa izan zela ikusita udaleko batzordea izan ordez aparte uztea erabaki dugu.

## 2.3 Epealdiko ekintzak (2015-11-29tik 2016-1-17ra)

- **Abenduaren 3a: EUSKERAREN EGUNA**

Arratsaldeko 16.30etan eskolako haurren ekitaldia ikusi ondoren, plazan elkartu eta Atxaputxuko errotondan jarri den Uemako bide ikurraren ondora joan ginen, bertan Euskal Herrian Euskeraz abestia abestu eta bertaratu diren euskaldun berriei esker oroigarri bana eman zitzaien (egoera honetan, 20 lagun inguru daude Zerainen).





<b>2015eko EUSKERA EGUNA</b>	
	<b>IRTEERAK</b>
<b>ONDARRE (SEGURA)</b>	<b>28,35€</b>
<b>LIZTORMENDI ELKARTEA</b>	<b>26,95€</b>
<b>PERGAMINOAK</b>	<b>15,75€</b>
<b>MANDIO DENDA</b>	<b>17,38€</b>
	<b>88,43 €</b>

Ondoren merienda izan zen Liztormendi elkartearen.

- **Gabonak**

Abenduaren 22an gabon kantuen entsaioa egin zen kultur etxean Bittoriorekin.

Abenduaren 24ean autobus geltokian elkartu zen taldea goizeko 9etan, herriko auzoetan eta herri inguruko etxeetan ibili ziren gabon kantu eskean arratsaldeko 3rak inguru arte.



Eskolako haur, guraso eta irakasleak berriz, herri kasko eta inguruan ibili ziren. Iluntzean Olentzeroren bisita izan genuen herriko plazan.



Olentzero plazara etorri zen trikitixa soinu lagunduta, ondoren haurrek abestu zuten eta jarraian Uharka abesbatzak. Ondoren Olentzerok haurrei opariak eman zizkien eta gaztainak eta ardoa helduei.

Kantu eskean 1251 euro bildu ziren eta hiru zatitan banatu zen, talde bakoitzarentzat 417 euro: Caritas elkartearentzat, Etxerat elkartearentzat eta OA elkarterarentzat.

<b>2015eko GABON EGUNA</b>	
	<b>IRTEERAK</b>
<b>OLENTZEROREN ASTOA</b>	<b>0€</b>
<b>HAURRENTZAT GOXOKIAK</b>	<b>38,50€</b>
<b>GAZTINAK</b>	<b>39,24€</b>



### 3. Segura-Zerain mendi lasterketa

## MAIATZAK 7, LARUNBATA ARRATSALDEZ

Mendi lasteketa berri bat izango degu bi herrien eta herritarren artean elkarlanean egingo dena; Seguratik irten, Zeraindik pasa, Oa mendi aldera joan, Barbarira, handik Arrabiolara jetsi, Santa Barbara igo eta berriz Segura herrira.

Guzti honen aurkezpena egin zuten antolaketa lanean dabilizan bi lagunek eta baita ere deialdi bat egin ziguten **OTSAILAK 2, arratsaldeko 18.30etan ZERAINGO KULTUR ETXEAN** egingo den bilerarako. Bertan ibilbidea berrikusi, lanen nondik norakoak zehaztu eta lan taldean parte hartzeko gonbidapena luzatuko digute.